

Aurten 35.000 lagunek bisitatu dituzte Getxoko udako liburutegiak

Pasa den astean amaitutako Letren Terrazek emaitza onak utzi dituzte: guztira, 35.000 lagunek bisitatu dituzte udako liburutegiak (iaz, 33.000 pertsona egon ziren udako liburutegietan), Getxoko Kultur Etxeak emandako datuen arabera. Uztailaren 1etik abuztuaren 28ra, Letren Terrazak hogeita bosgarren urtez jarraian atera dituzte liburuak kalera, helduen eta txikien gozamenerako. Aurten, gainera, txikientzako ekitaldi berriak antolatu dira. Haurrek ezin hobeto hartu dituzte 'Antzinako jokoak', 'Baretze eta elkartasun jokoak' eta eskulan tailerrak, besteak beste. Urtero bezala, liburutegiek hiru tokitan bultzatu dute irakurtzea: Areetako Xake, Algortako Telletxe eta Getxoko Sarri plazetan, hurrenez hurren. Leku horietatik pasatu diren erabiltzaileak adin guztietakoak izan dira, nahiz eta haurrak nagusi izan. Izan ere, 23.000 umek bisitatu dituzte Letren Terrazak aurten. Argazkian, hainbat lagun Getxoko Sarri plazako udako liburutegian. Ohi bezala, irakurgai-bilduma berezia hautatu da liburutegietarako, udan irakurtzeko aproposak, hain zuzen ere. Guztira, euskarazko eta gaztelaniazko 2.500 bat liburu egon dira terrazetan. Maileguei dagokienez, aurten 13.000 baino gehiago egin dira. Horietako 4.000 euskarazko aleak izan dira.

Aisialdirako gunea

Udako liburutegiak izateaz gain, Getxoko Joko eta Letren Terrazek aisialdirako gune bilakatzea dute helburu nagusi. Aisialdirako gunea oso arrakastatsua izan da aurten, horren eskaintza bultzatu baita. Batetik, ludoteka bat egin da bigarren aldiz. Bertan, antzinako eta baretze eta elkartasun jokoak egon dira. Bestetik, eskulan tailerrak egon dira terrazetan astelehenetik ostiralera. Jarduera horiei esker, haurrek irakurtzea eta jolasak elkartu ahal izan dituzte.